

Zerbitzuek Bilbon eta Donostian jarduera ekonomikoaren % 90 hartzen dute, eta, Gasteizen, zerbitzuekin (% 68,9) batera, industriak (% 25,9) ere bai

Gipuzkoak jarduera ekonomikoaren lurraldearen arabera antolamendu banatuagoa du, beste bi lurraldeekin alderatuta

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalerriek sortutako jarduera ekonomikoa, balio erantsi gordinaren (BEG) terminoetan, Zerbitzuen sektorean oinarritzen da, nagusiki, eta sektore horrek, Euskal AEko 3 hiriburuetan, hirurek 2019an sortutako jarduera osoaren % 83,4 hartzen du, Eustaten datuen arabera.

Egoera hori bereziki nabarmena da Bilboren kasuan; bertan, zerbitzuen jarduerak jarduera ekonomiko osoaren % 90,8 hartzen dute. Halaber, bereziki nabarmena da Donostiaren kasua; bertan, % 88,7 hartzen dute. Bi kasu horietan, honako jarduera hauek duten presentzia handiak eragiten du: Higiezinak, Merkataritza edo Ostalaritza, besteak beste.

Gasteizek, bestalde, askoz ere pisu baxuagoa du Zerbitzuen sektorean (% 68,9), egitura ekonomiko industrialagoaren alde, zeinak, Automobilgintzako Industriaren eta Kautxuzko Produktuen manufaktura-ekoizpenean oinarrituta, jarduera ekonomikoaren % 25,9 hartzen baitu.


Euskal AEko hiriburuen balio erantsi gordina (BEG), jarduera-sektoreen arabera. Prezio arruntak (milaka euro). 2019

	Hiriburuak guztira		Bilbao	Donostia / San Sebastian	Vitoria-Gasteiz
Total	26.645.812	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	24.304	0,1%	0,1%	0,0%	0,2%
INDUSTRIA Y ENERGIA	2.939.269	11,0%	3,9%	5,1%	25,9%
Manufaktura-industria	2.323.782	8,7%	2,1%	3,3%	22,4%
ERAIKUNTZA	1.454.022	5,5%	5,3%	6,2%	5,1%
ZERBITZUAK	22.228.217	83,4%	90,8%	88,7%	68,9%
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	5.552.406	20,8%	22,2%	20,9%	18,9%
Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	5.988.725	22,5%	21,0%	25,5%	21,8%
Gainerako zerbitzuak	10.687.086	40,1%	47,5%	42,3%	28,2%

Iturria: Eustat. Udal BEG

Gasteizek Arabako lurralde historikoaren BEGaren % 72,6 sortzen du

Arabako lurralde historikoan BEG handiena sortzen duten udalerrien artean, Gasteiz hiriburua da nabarmenena; 8.000 milioi euro baino gehiagoko BEGa izanik, lurralde osoan sortutako BEGaren % 72,6 hartzen du.



Arabako Lautadako eskualdea Gasteizko enpresa-egitura sendoan oinarritzen da, eta, aldi berean, Arabako lurraldeari balio erantsi gehien ematen dion eskualdea da, bai Industria eta Energiaren sektorean (lurralde osoaren % 65,3 dakar) bai Eraikuntzan (% 79,5) eta Zerbitzuetan (% 84,8). Ondoren, sektore horietan, Arabako Kantaurialdearen eskualdea dago. Bertan, honako udalerri hauek nabarmentzen dira: Laudio, non Beiraren industriak eta Siderurgiak pisu handia baitute, eta Amurrio, non Siderurgiak eta Altzarien fabrikazioak ere pisu handia baitute.

Arabako Errioxaren eskualdeak baino ez du ordezkatzeko Arabako Lautada Lehen Sektorean; lurralde historikoan sektore horren balio erantsiaren % 49,2 hartzen du, eskualde horren ardogintzaren jarduerari lotutako nekazaritzari esker. Eskualde horretan, Oion eta Laguardia nabarmentzen dira, guztizkoaren % 10,0 eta % 9,4 hartzen baitute, hurrenez hurren.

BEGan pisu handiena duten Arabako eskualdeak eta udalerriak (%) jarduera-sektoreen arabera. 2019

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	%	INDUSTRIA ETA ENERGIA	%	ERAIKUNTZA	%	ZERBITZUAK	%
Araba	100,0%	Araba	100,0%	Araba	100,0%	Araba	100,0%
Arabako Errioxa	49,2%	Arabako Lautada	65,3%	Arabako Lautada	79,5%	Arabako Lautada	84,8%
Arabako Lautada	21,9%	Arabako Kantaurialdea	12,6%	Arabako Kantaurialdea	12,1%	Arabako Kantaurialdea	8,2%
Añana	11,4%	Arabako Errioxa	10,2%	Arabako Errioxa	3,0%	Arabako Errioxa	2,8%
Oyón-Oion	10,0%	Vitoria-Gasteiz	59,7%	Vitoria-Gasteiz	76,0%	Vitoria-Gasteiz	80,5%
Laguardia	9,4%	Laudio/Llodio	5,7%	Laudio/Llodio	8,3%	Laudio/Llodio	5,3%
Vitoria-Gasteiz	8,7%	Amurrio	5,6%	Amurrio	2,6%	Amurrio	2,0%


Iturria: Eustat. Udal BEG

Bizkaian BEG gehien sortzen duten udalerriak Bilbo Handiaren eskualdekoak dira

Bilbo Handiaren eskualdean daude Bizkaian BEG gehien sortzen duten 10 udalerrietako 9; horien guztien artean, 2019an, lurralde historiko horren BEG guztiaren % 60,8 sortu zuten. Honako udalerri hauek dira: Bilbo (2019an BEGeko 11.200 milioi euro baino gehiago), Barakaldo, Zamudio, Getxo, Leioa eta Basauri (aldi berean, bakoitzak 1.000 milioi euro baino gehiago sortzen ditu) eta Erandio, Galdakao eta Santurtzi (bakoitzak 900 milioi euro baino gehiago sortzen ditu).

Balio erantsi gordina (BEG), guztira, Bizkaiko udalerrien arabera

milaka euro



Iturria: Eustat. Udal BPG

Jarduera-sektoreen arabera, Gernika-Bermeo eskualdea da 2019an BEGaren bolumen handiena sortu duena Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorean (Bizkaiko guztizkoaren % 54,0). Hala ere, Araban ez bezala –bertan nekazaritza-jarduera da nagusi–, Gernika-Bermeon arrantzak dakar BEG handiena Bizkaiko lurraldean sektore horretan, eta Bermeo da arrantza-jarduera handiena duena (% 48,4) eta, ondoren, Ondarroa (% 9,8).

Gainerako sektore ekonomiko handietan, Bilbo Handiaren eskualdea da nagusi: % 58,4ko pisua du Bizkaiko Industria eta Energian, % 78,9koa Eraikuntzaren kasuan eta % 81,9koa lurralde historikoko Zerbitzu guztietan; haietan, oso esanguratsuak dira Higiezinak jarduerak, Merkataritza, Ostalaritza eta Administrazio publikoen zerbitzuak, besteak beste.

BEGan pisu handiena duten Bizkaiko eskualdeak eta udalerriak (%) jarduera-sektoreen arabera. 2019

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	%	INDUSTRIA ETA ENERGIA	%	ERAIKUNTZA	%	ZERBITZUAK	%
Bizkaia	100,0%	Bizkaia	100,0%	Bizkaia	100,0%	Bizkaia	100,0%
Gernika-Bermeo	54,0%	Bilbo Handia	58,4%	Bilbo Handia	78,9%	Bilbo Handia	81,9%
Markina-Ondarroa	14,6%	Durangaldea	23,2%	Durangaldea	7,4%	Durangaldea	7,7%
Bilbo Handia	8,8%	Plentzia-Mungia	5,1%	Plentzia-Mungia	6,3%	Plentzia-Mungia	3,5%
Bermeo	48,4%	Zamudio	9,9%	Bilbao	27,6%	Bilbao	37,8%
Ondarroa	9,8%	Bilbao	6,5%	Barakaldo	8,6%	Barakaldo	7,0%
Karrantza Harana/ Valle de Carranza	2,6%	Muskiz	5,8%	Erandio	5,1%	Getxo	5,2%

Iturria: Eustat. Udal BEG

Nabarmentzekoa da Industria eta Energiaren sektorean Bizkaiko BEGaren sorrera nahiko banatuta dagoela udalerrri askoren artean, eta Zamudio da pisu handiena duena, guztizkoaren % 9,9. Ez da gauza bera gertatzen Eraikuntzaren eta Zerbitzuen sektoreetan; izan ere, Bilbao da BEGaren ehuneko handiena duen udalerrria (% 27,6 eta % 37,8ko pisua, hurrenez hurren).

Donostialdeak Gipuzkoako BEGaren % 48,2 sortzen du


Gipuzkoaren barruan, Donostialdea da 2019an BEG handiena sortu duena, 11.000 milioi euro baino gehiago, lurraldearen guztizkoaren % 48,2. Donostiako udalerrria da buru; 7.000 milioi euro baino gehiagoko BEGa sortu du eta % 29,7ko pisua du.

Irun, Bidasoa Beherean, BEG gehien sortzen duen Gipuzkoako bigarren udalerrria da (1.700 milioi euro baino gehiago), zati handi batean duen muga-egoeragatik eta horrek dakartzan jarduerengatik –besteak beste, Merkataritza, Ostalaritza eta garraioarekin lotura duten zerbitzuak–.

Gipuzkoan BEGaren antolamendua banatuago dago lurraldean, beste bi lurralde historikoekin alderatuta, non BEGaren kontzentrazio handiagoa baitago.

Balio erantsi gordina (BEG), guztira, Gipuzkoako udalerrien arabera

milaka euro



Iturria: Eustat. Udal BPG

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorean, kostaldeko eskualdeak nagusitzen dira, eta Urola Kosta da BEG handiena duena, sektorearen % 32,2 sortzen baitu lurraldean, eta, ondoren, Bidasoa Beherea (% 17,9) eta Donostialdea (% 15,8). BEG handiena sortzen duten udalerriek arrantza-jarduera handia dute, eta honako hauek dira nagusiak: Hondarribia (sektorearen % 16,8), Getaria (% 15,3) eta Pasaia (% 7,1).

BEGan pisu handiena duten Gipuzkoako eskualdeak eta udalerriak (%) jarduera-sektoreen arabera. 2019

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	%	INDUSTRIA ETA ENERGIA	%	ERAIKUNTZA	%	ZERBITZUAK	%
Gipuzkoa	100,0%	Gipuzkoa	100,0%	Gipuzkoa	100,0%	Gipuzkoa	100,0%
Urola Kosta	32,2%	Donostialdea	26,8%	Donostialdea	51,2%	Donostialdea	57,5%
Bidasoa Beherea	17,9%	Goierri	20,0%	Goierri	8,6%	Bidasoa Beherea	10,1%
Donostialdea	15,8%	Debagoiena	17,5%	Debagoiena	6,4%	Urola Kosta	8,2%
Hondarribia	16,8%	Beasain	7,8%	Donostia / San Sebastián	29,7%	Donostia / San Sebastián	40,5%
Getaria	15,3%	Hernani	6,4%	Irun	8,7%	Irun	8,1%
Pasaia	7,1%	Oñati	5,7%	Arrasate/Mondragón	3,3%	Arrasate/Mondragón	3,6%

Iturria: Eustat. Udal BEG

Industria eta Energiaren sektoreko BEGa oso banatuta dago udalerrien artean; Beasain dago lehen postuan, zeinak % 7,8ko pisua baitu lurraldeko BEG osoaren gainean, nagusiki trenbide-materialaren fabrikazio handiaren ondorioz. Ondoren, Hernani (% 6,4) eta Oñati (% 5,7) daude, eta bietan da nabarmena Erabilera orokorreko makineria, besteak beste.

Eraikuntzaren eta Zerbitzuen sektoreetan, balio erantsiaren kontzentrazio handiena Donostialdean izan da, zehazki, eta, beste bi lurralde historikoetan bezala, lurraldeko hiriburuaren –Donostia– jardueraren arrastearen ondorioz, zeinak Gipuzkoako lurraldeko Eraikuntzaren % 29,7 eta Zerbitzuen % 40,5 sortzen baitu. Azken horietan, presentzia handia dute Higiezinaren jarduerak eta turismoari lotuta dauden ostatu eta jatetxeetakoek (Ostalaritza).

Ohar metodologikoa: Jarduera ekonomikoa, ekoizpen-sektoreek (lehen mailakoa, industria, eraikuntza eta zerbitzuak) sortzen duten balio erantsiaren bidez neurtua, haren ekoizpen-unitateak dauden lurraldeari lotzen zaio. Errenta, berriz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62